

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FLUIDO-SAREAK MUNTATZEKO AURREKONTUAK EGITEA	Iraupena	70
		Berariazkoa	
Kodea	UF0470		
Lanbide-arloa	INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen proiektu-garapena	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen muntaketaren plangintza.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Fluido-sare bat muntatzeko prozedurak garatzea.	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1281_3 gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, elektromedikuntzako sistemetan parte hartzen duten elementu eta ekipoei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Obra-unitateak prestatzea eta bakoitzaren kantitate eta kostu partzialak eta totalak zehaztea, unitate-mota bakoitzarentzat egokiena den neurketa-prozedura hautatuz, instalazioaren proiektua eta dokumentazio teknikoa oinarri hartuta.

EI1.1 Fluido-instalazioen dokumentazio teknikoan dagoen obra-unitateei buruzko informazioaren ezaugarriak zehaztea.

EI1.2 Fluido-instalazio bat muntatzeko proiektuaren kasu praktiko batean, planoak eta espezifikazio teknikoak oinarri hartuta:

- Instalazioan sartzen diren obra-unitateak identifikatzea.
- Obra-unitateak dimentsionatzean erabili beharreko neurri-unitateak identifikatzea.
- Identifikatutako obra-unitate bakoitzari aplikatu daki(zki)okeen neurketa-metodoa(k) zehaztea, kantitate partzialak edo totalak lortzeko behar diren kalkuluak eginez.
- Obra-unitateak bakoitza bere kapituluaren sailkatzea.
- Ezarritako obra-unitate bakoitzaren prezio unitarioak zehaztea.
- Obra-unitate bakoitzaren prezio banakatuen konposizioa azaltzea.
- Aurrekontuko obra-unitate bakoitzaren zenbateko osoa zenbatestea.
- Prozesua dokumentatzea.

A2: Fluido-instalazioak muntatzeko prozesuetan aplikatu beharreko segurtasun- eta ingurumen-arauak aztertzea, muntaketa-lanak segurtasun pertsonalari eutsiz eta ingurumena errespetatuz egiteko irizpideak eta jarraibideak zehazteko.

EI2.1 Fluido-instalazioen muntaketa-lanetan aplikatu behar diren araudien eta segurtasun- eta ingurumen-arauen jarraibideak deskribatzea, obra egitean hartu beharreko neurriak eta izan beharreko baliabideak planifikatzeko.

EI2.2 Fluido-instalazio bat muntatzeko kasu praktiko batean, kondizioak behar bezala azaldu direlarik:

- Azaldu litezkeen arrisku-faktore nabarmenenak identifikatzea.
- Askotariko muntaketak egiteari eta masa handiak mugitzeari lotuta biltegietan eta obra-lantegietan, baliabide osagarrietan, makinerian eta lanetan segurtasun pertsonalari eta ingurumen-segurtasunari dagokionez hartu beharreko neurriak, izan beharreko baliabideak eta egin beharreko jarduerak zehaztea eta azaltzea.
- Muntaketarako segurtasun- eta ingurumen-planaren dokumentazio teknikoa sortzea, eta aplikatu beharreko arauak zehaztea.

Edukiak

1. Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen muntaketako neurketak eta aurrekontuak

- Lan- eta neurketa-unitateak.
- Erosketen espezifikazioak.
- Lehengaien kostua.
- Eskulanaren kostua.
- Makina, erreminta eta tresnen amortizazioaren kostuak.
- Kostu orokorrak.
 - Instalazioetako amortizazioa.
 - Energia, ura, berokuntza.
 - Garraioa.
 - Kudeaketak eta askotarikoak.

- Aurrekontu orokorrak.

2. Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen muntaketako segurtasuna

- Segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
- Fluido-instalazioei buruzko ingurumen-araudia.
- Segurtasun- eta ingurumen-planak fluido-instalazioen muntaketan.
- Behin-behineko instalazioetako eta obra-lantegietako segurtasuna.
- Fluido-instalazioak muntatzean segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko jarraitu beharreko irizpideak.
- Segurtasunaren kontrola. Faseak eta prozedurak.
- Baliabideak eta dokumentazioa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen proiektu-garapena